



2024ko aurrekontuak: Inbertsio esanguratsuen Apeztegiko igogailua

HERRIA

Astigarragako Udalak,
Hernaniko Udalarekin batera
"Ez da sagardoa, zu zara"
sentsibilizazio kanpaina abiatu du

2

EKINTZA ERAGILEAK

AEK: Euskaraz
arazo gabe bizitzea
jomugan

6-7

IRITZIA

Txotx denboraldia: Ospakizun
garaia, bizikidetzan erronkak
dituena

11

Astigarragako Udalak, Hernaniko Udalarekin batera **“Ez da sagardoa, zu zara”** sentsibilizazio kanpaina abiatu du

Txotx garaia hasi den honetan, Astigarragak bisitari ugari jasoko ditu bere sagardo eta gastronomiak erakarrita. Alabaina, bisitarien presentzia masibo horrek eta asteburuetan jaietako jardueren gorakadak, kudeatzeko zailtasun handiak eta alboko kalteak sortzen dituzte.



Jarrera desegokiei erantzunez, Astigarragako Udalak, Hernaniko Udalarekin batera, sentsibilizazio kanpaina bat abiarazi du lehen aldiz, "Ez da sagardoa, zu zara" lelopean.

Ekimena bi udalerriren arteko lankidetzatik sortu da, eta herri bakoitzaren behar espezifikoetara egokitu da. Astigarragan, bi ekimen nagusi garatu dira.

BIZIKIDETZA ETA ERRESPETUA

"Ez izan sagar ustel bat" mezua duten banderatxoak banatu dira bizikidetzeta eta errespetua sustatzeko. Banderatxo horiek herritar guztientzat daude eskuragarri udaletxean, eta mezu hau helarazi nahi dute: errespeturik gabeko portaerek jai giroa zapuztu dezakete.

ERASOEN AURKAKO NEURRIAK

Bestalde, Astigarragak erasoen aurkako hainbat neurri ezarriko ditu. Horien artean, "Nik sinesten dizut" txapak nabarmen dituzte, Gazte Asanbladaren ekimen bat, erasoen biktimei laguntza eskaini nahi dietenentzat. Txapa horiek Emakumeon Etxean egongo dira esku-

ragarri, eta bertan informazio zehatza eta prestakuntza emango da egoera horien aurrean nola jokatu jakiteko. Formakuntza Emagin elkarteak emango du martxoaren 2an, 10:00etatik 11:30era Emakumeon Etxean. Gainera, Joseba Barandiaran plazan, karpa more bat jarriko da larunbatero, otsailaren 3tik martxoaren 23ra bitartean, 17:00etatik 22:00etara, eraso matxistak prebenitzeko eta artatzeko. Aldi berean, arreta-telefono bat jarriko da (638 206 586) larunbatetan, 22:00etatik 04:00etara, edozein erasoren aurrean laguntza emateko. Azkenik, Udaltzaingoa bere presentzia indartuko du txotx denboraldiko larunbatetan, 9:00etatik 02:00etara. Beraiekin harremanetan jartzeko 699 487 587 telefono zenbakia erabili ahalko da.

Ekimen horiek hainbat eragileren proposamenak dira, bereziki Gazte Asanbladarenak eta Emakumeon Etxearenak, baita Kontxa Etxeberria Foroan parte hartzen duten eragileek ere. Neurri horiekin, Astigarragak indarkeriarik gabeko udalerrira izateko konpromiso irmoa hartu du, jai-giro segurua eta errespetuzkoa sustatuz, bai bizilagunentzat, bai bisitariarentzat.

El Ayuntamiento de Astigarraga lanza junto con el Ayuntamiento de Hernani la campaña de sensibilización "Ez da sagardoa, zu zara"

El Ayuntamiento de Astigarraga, en colaboración con el Ayuntamiento de Hernani, ha lanzado la campaña "Ez da sagardoa, zu zara" para abordar comportamientos inadecuados durante la temporada festiva del txotx.

En Astigarraga, la iniciativa incluye la distribución de banderolas con el mensaje "No seas la manzana podrida" que buscan transmitir que los comportamientos irrespetuosos arruinan el ambiente festivo. Además, se implementarán medidas contra las agresiones, como las chapas "Yo te creo" destinadas a quienes quieran ofrecer apoyo a víctimas de agresiones. Estarán disponibles en Emakumeon Etxea, donde se brindará información y formación sobre cómo actuar ante tales situaciones. Además se pondrá una carpa morada en la plaza Joseba Barandiaran cada sábado entre el 3 de febrero y el 23 de marzo de 17:00 a 22:00 horas, para prevenir y atender agresiones machistas. También se establecerá un teléfono de atención (638 206 586) y se reforzará la presencia de la Guardia Municipal los sábados de la temporada de txotx (9:00 a 02:00 horas) siendo localizables a través del número 699 487 587.

“Herritarrak aktibo bihurtzea bilatzen dugu”

2023ko martxoan Astigarragako Udalak, osasun zentroarekin elkarlanean, Kirol Orientazioko Zerbitzua (KOZ) martxan jarri zuen.

Zerbitzua Mugiment Eusko Jaurlaritzaren programaren barruan kokatuta dago eta herritarrek jarduera fisikoa egitea, bizitza aktiboagoa eta osasungarriagoa izatea, eta hori bultzatuko duen tokiko sare bat sortzea ditu helburu. Harrezkero, Mikel Arostegi, zerbitzuaren arduradunak, 36 astigartar artatu ditu anbulatorioan kokatuta dagoen gela batean.



Zer motatako jarduera fisikoak gomendatzen dituzu?

Proposamenak mota askotakoak izan daitezke, nork bere kabuz egiteko jarduera-taula pertsonalizatua, ikastaro zehatz batean izena ematea... Dena baikoitzaren gustu eta aukeretara mugatuta eta udalerrian dauden baliabideak kontuan hartuta. Eta ez bakarrik kiroldegiak eskaintzen dituenak, herriko eragileek ekintza desberdinak antolatzen dituzte: dantza ikastaroak kultur etxean, gimnasia pasiboa Galtzaurren... Herritarrak aktiboak bihurtzea bilatzen dugu, eta horretarako Osasunaren Munduko Erakundeak markatzen duen gutxieneko jarduera fisikoa egitea markatzen diet: 150 minutuko jarduera aerobikoa astean intentsitate ertainean.

Zein da erabiltzaileen profila?

Bataz besteko adina 60 urte dira. 50 urte inguruko jende dezente etorri da, baina baita zaharragoak ere. Espektra zabala da.

Orokorrean, nondik ailegatzen da jendea zerbitzura?

Normalean medikuak bideratuta etortzen dira, askotan osasun arazo horiek jarduera fisiko faltagatik sortzen baitira. Medikuek zerbait esaten digun arte, lasai asko hartzen ditugu guztiok gauzak, baina jarduera fisiko gehiago egin behar dugula esaten digunean... Orduan bai serio hartzen dugu. Edonor etor daiteke zerbitzura, medikuak esanda edo bere kabuz, zuzenean hitzordua hartuta.

Zein kasutan gomendatuko zenioke jendeari bere kabuz zerbitzura hurbiltzea?

Jarduera fisikoa egiteko animatuta egonda ere, nondik hasi ez dakien pertsonari.

"Buscamos que las personas de Astigarraga sean activas"

En marzo de 2023 el Ayuntamiento de Astigarraga, en colaboración con el centro de salud, puso en marcha el Servicio de Orientación Deportiva. El servicio tiene como objetivo que la ciudadanía realice actividad física, tenga una vida más activa y saludable, y cree una red local que lo impulse. Desde su creación, Mikel Arostegi, responsable del servicio, ha atendido a 36 astigartarras.

“Las personas usuarias llegan al servicio por recomendación de su médico o por su cuenta. Una vez conmigo, les hago un cuestionario para conocer sus opciones y gustos. A partir de esta información les hago una propuesta en una siguiente cita”, comenta Mikel. “Las propuestas pueden ser de diferentes tipos, un cuadro de actividades personalizado para hacerlo de modo individual, o la recomendación de inscribirse en un curso concreto... Todo de acuerdo a los gustos y posibilidades de cada persona y teniendo en cuenta los recursos existentes en el municipio. Buscamos que las personas de Astigarraga sean activas y para ello se les marca la práctica mínima de actividad física recomendada por la Organización Internacional de la Salud: 150 minutos de actividad aeróbica semanal a intensidad moderada”, concluye.

Nola funtzionatzen du zerbitzuak?

Erabiltzaileak bere medikuak gomendatuta edo bere kabuz ailegatzen dira zerbitzura. Behin nirekin daudela, hainbat galdera egiten dizkiet: jarduera fisikoa egiten duten, osasun arazoak dituzten, beraien gustuak, kiroldegian matrikulatuta dauden, beraien buruak zuzendutako klase edo ikastaroak egiten ikusten dituzten... Informazio guzti hori kontuan hartuta hurrengo hitzordu batean proposamen bat egiten diet. Hilabete geroago telefono bidezko jarraipena egiten diet aholkatutako jarduerekin nola doazen jakiteko. Gogorregia, suabeegia edo aspergarria egiten bazaie, beste proposamen bat egiten diet.

Hitzordua hartzeko
Para solicitar una cita



747 482 732
(KOZ)



kirolorientatzailea@astigarraga.eus

1 Presentación del Plan de Legislatura: Un compromiso con la participación ciudadana

El Gobierno municipal invita a la ciudadanía a la presentación del nuevo Plan de Legislatura el 14 de marzo, de 19:00 a 20:30 horas, en la sala de exposiciones del centro cultural Erribera. Este plan, fruto de los procesos de reflexión y estudios participativos, se mostrará a través de imágenes y fotografías, detallando los proyectos clave para los próximos cuatro años. Además, la exposición estará abierta hasta el 27 de marzo, con horarios de visita de 10:00 a 13:00 y de 16:00 a 20:00 horas, y contará con sesiones especiales los días 21 y 25 de marzo para resolver dudas directamente con los y las representantes municipales.



1

2

2 Andre Gobadarien ibai-parkea kirol eta aisialdi instalazio berriekin egokitzeko lanak aurrera doaz

Andre Gobadarien ibai-parkea hobetzeko lanak 2023. urtearen amaieran hasi ziren, eta nabarmen ari dira aurrera egiten. Lur-mugimenduak amaitu direnean, aisialdiko eta kiroleko elementuak instalatzen hasi dira. 228.962,25 euroko aurrekontuarekin. Aisialdirako eta ariketa egiteko edozein adineko pertsonentzako eremu hau amaituta egongo da martxoaren hasieran..

Aldi berean, Udala parkearen argiztapena hobetzen ari da, LED teknologiarekin eta balizko uholdeetara egokitutako farolekin, 66.227,11 euroko aurrekontu osagarriarekin. Argiztapen berria bereziki diseinatu da elementuak uholde eremuan daudela kontuan hartuta. Hilabete barru martxan egongo da, parkearen segurtasuna eta irisgarritasuna hobetuz.

3 Nuevo servicio de Atención Diurna en Astigarraga para personas mayores

Astigarraga inaugura su nuevo Servicio de Atención Diurna a partir de febrero, destinado a mejorar la calidad de vida de las personas mayores en riesgo de dependencia y con dependencia primaria. El servicio, que comenzará con tres personas usuarias, se enfoca en fomentar las capacidades cognitivas, funcionales y sociales de los mayores, promoviendo así una vida más independiente y autónoma dentro de la comunidad. Las actividades se llevarán a cabo en la sociedad Galtzaur, tres veces por semana y por tres horas cada día. Aquellas personas interesadas en aprovechar este recurso pueden contactar con Servicios Sociales del Ayuntamiento al teléfono 943 335232 para obtener más información o inscribirse.



3

4 Sagardo Plazaren berritze lanak hasi dira, jolasgune berritzaileekin

Sagardo Plaza eraldatzeko lanak hila-bete honetan amaitu dira. 72.108,18 euroko aurrekontuarekin, proiektuak adin guztietara egokitutako jolasgune berriak barne hartzen ditu, txirristak eta ohe elastikoak bezalako elementuekin, eta baita aisialdirako eremuak hobetzea ere. Ahalegin hori udalaren "Jolastuko al gara?" prozesu parte-hartzailearen parte da, non herri eskolako eta gaztelekuko haur eta nerabeek parte hartu zuten espazio ludikoak berritzeko asmoarekin.



4



5

5 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren aurrerapenak

Udala aurrera egiten ari da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana osatzeko. Orain arte, hura diseinatzeko programatutako lau saioetatik hiru egin dira, eragileak eta herritarrak modu aktiboan inplikatur. Saio horiek otsailean egin dira, eta funtsezko gaiak jorratu dituzte, hala nola, hezkidetzak haur, nerabe eta gazteekin, emakumeen ahalduntzea eta Emakumeon Etxearen erreferentzialtasuna, bai eta zaintzarekin eta indarkeria matxistaren prebentzioarekin lotutako gaiak ere. Azken saioa Udaleko langile eta politikariek egingo da, eta martxorako aurreikusita dago. Bilerak guztiak egin ondoren, plana idatzi eta gizarteratuko da, eta komunitatearen genero-berdintasuna lortzeko urrats esanguratsua izango da.

6 De 68 solicitudes recibidas, 53 logran bonificaciones en las tasas municipales

Este año, el Ayuntamiento de Astigarraga ha aprobado bonificaciones en las tasas municipales para 53 de las 68 solicitudes recibidas, en un esfuerzo por mejorar la protección social y aumentar el acceso a la ciudadanía con menores ingresos. Este notable incremento en las aprobaciones se debe a la decisión del Ayuntamiento de ampliar el rango de renta para que más familias pudiesen acceder a estas bonificaciones. De las solicitudes aceptadas, 42 recibirán una bonificación del 90%, 6 del 75% y 5 del 50%, asegurando que la mayoría de las personas beneficiarias disfruten de una reducción significativa del 90% en las correspondientes tasas.

Este año se han registrado menos solicitudes que el anterior, pero se han aprobado más al aliviar más el límite de renta, permitiendo así llegar a más personas en un contexto de aumento del coste de vida. Las bonificaciones, que varían entre el 50% y el 90%, se aplican a una variedad de tasas y servicios municipales, incluyendo agua, recogida de basuras, cementerio, actividades en el Gazteleku y cursos en la casa de cultura. Este cambio subraya el compromiso del Ayuntamiento con el apoyo a las familias de Astigarraga que enfrentan dificultades económicas.



6

Euskaraz arazo gabe bizitzea jomugan

AEK Euskal Herrian euskararen normalizazioan diharduen erakundea da. Bere xede nagusia euskaldun guztien hizkuntza eskubideak errespetatzea eta euskaraz bizitzeko arazorik ez izatea da. Horri begira egiten dute lan.

Astigarragako Euskaltegian (Kale Nagusia, 48) aurten 109 ikasle daude matriculatuta 12 taldetan. Mailaren arabera antolatutako 11 taldek euskaltegian jasotzen dituzte klaseak 10 ikaslez osatutako taldeetan batzaz beste. Hamabigarren taldea Galtzaur Elkarteko 10 bat jubilatuz osaturik dago. Aurreko urtean hasitako proiektua da hau eta aurten elkarteak euskara klaseak mantendu ditu bere ekintzen artean. Urtero AEKk herriko beste eragile eta Udalarekin biltzen da herrian dauden beharrak identifikatzeko eta horren arabera euskara ikasteko taldeak sortzeko.

Euskaltegiko ikasleak bi multzo orokorretan banatzen dira. Alde batetik, bere burua euskaldundu nahi dutenak daude: euskara maila baxua dute eta, motibazio desberdinak direla eta, euskara ikasi nahi dute (seme-alabak laguntzeko, kanpotik etorri berriak direlako...). Bestetik, titulua lortu nahi duten ikasleak daude. Hauek maila altuagoa dute eta lanerako edo etorkizunerako gaitasun agiria nahi dute.

Baina AEK ez da soilik euskarazko ikastaroak ematen dituen erakundea. Euskararen normalizazioan eragiten duten faktore desberdinekin lan egiten du hainbat proiektuen bidez, hala nola, Mintzapraktika egitasmoak, aholkularitza zerbitzua eta euskara sustatzeko proiektuak.



Astigarragako AEK-ko irakasleak

PRAKTIKATU

Mintzalagun: astean behin ordubetez elkartzen dira taldean euskara praktikatzeko. Talde bakoitzean 'bidelagun' deitzen duten herritar euskaldun batek ereduaren funtzioa egiten du taldeko gainerakoentzat.

Gurasolagun: Klaseak amaitu ondoren gurasoak umeekin elkartzen dira Herri Eskolan. Astigarragan Xaguxar elkar-tearekin batera egiten da eta ludoteka moduan funtzionatzen du.

Zilegi eskola: Tailer, hitzaldi, irteera eta ikastaroak antolatzen dira euskara aisiarekin lotzeko. Hilean behin edo bitan antolatzen dira eta, normalean, herriko eragile edo norbanakoak izaten dira gai-emai. Maiatzean Zilegi Astea egiten dute eta hainbat ekintza antolatzen dituzte aste batean zehar.




AHIZE

Euskararen erabilera sustatzeko enpresa, administrazio zein erakundeei zuzendutako aholkularitza zerbitzua da. Egunotan, Udalarekin elkarlanean, Astigarragako Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa lantzen ari da.

SUSTAPENA

AEK dagoen herri bakoitzean, euskara sustatzen duen eragile bat da. Euskal Herrian hizkuntza politikan eragiteko lan ere egiten du Kontseilutik.



Astigarraga, harro dagoen herria



Astigarraga, un pueblo orgulloso

AEK es la organización que trabaja en Euskal Herria por la normalización del euskera con el objetivo de que se respeten los derechos lingüísticos de todos sus hablantes.

El Euskaltegi de Astigarraga cuenta este año con 109 personas matriculadas en los 12 grupos. Pero AEK no es sólo una entidad que imparte cursos de euskera. También organiza actividades de práctica (Mintzalagun, Gurasolagun, Zilegi eskola), ofrece servicio de asesoramiento a empresas e instituciones (AHIZE) y organiza proyectos de promoción del euskera como la Korrika.

Este año la Korrika partirá de Irun el 14 de marzo y finalizará el 24 del mismo mes en Baiona. La 23 edición de la Korrika, que lleva bajo lema Harro Herri (pueblo orgulloso) homenajeará al colectivo "Azterketak Euskaraz", asociación de estudiantes de Iparralde que luchan por ser examinados/as en euskera. En palabras de Iker Goñi, profesor de AEK en Astigarraga, "la Korrika de este año habla del orgullo de vivir en euskera y de ser euskaldun, y Astigarraga también lo está. Acabamos de entrar en UEMA (Mancomunidad de Municipios Euskaldunes) y eso significa que el conocimiento del euskera por parte de la ciudadanía es de al menos el 70%. Por lo tanto, podemos decir que es un pueblo euskaldun". Astigarraga recibirá la Korrika sobre las 17:45 de la tarde del 23 de marzo y contará con un programa cultural que se desarrollará durante los días previos y el mismo día 23.

1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehen Korrika antolatu zenetik, 22 Korrika eta 43 urte igaro dira. Aurten martxoaren 14an hasita, 11 egun eta 10 gauetz, adin eta mota guztietako milaka partaidek Euskal Herria zeharkatuko dute. Astigarragak martxoaren 23an arratsaldeko 17:45ak aldera jasoko du Korrika.

Astigarragak oso bere sentitzen du Korrika. Azken urteotan beti izan da Korrikaren pasealeku eta jendeak ilusio handiz jaso du egitasmoa. Aurten Irundik abiatuko da martxoaren 14an eta hilaren 24an amaituko da Baionan Harro Herri lolopean. 23. Korrikan 'Azterketak Euskaraz' kolektiboa omenduko da, azterketak euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren iparraldeko ikasleen elkarte. Euskara da haien aldarrria, Korrikarena bezalaxe. Aurtengo kanta Maite Arrotajauregi Mursego artista eibartarrak egin du Ibil Bedi, Urretabizkaia Txaranga, Ibon RG, Kau Kori Kura eta beste hainbat lagunen musikarekin.

Astigarragako AEKko irakasle Iker Goñiren hitzetan "aurtengo Korrikak euskaraz bizitzeko eta euskaldun izateko harrotasuna du hizpide, eta Astigarragak badu hori. UEMAn sartu berri gara eta horrek esan nahi du herritarren euskararen ezagutza %70ekoa dela gutxienez. Beraz, herri euskalduna dela esan dezakegu". Astigarragak martxoaren 23an arratsaldeko 17:45ak aldera jasoko du ekimena. Aurreko urteetan bezala, Korrika batzordeak ekimenaren bueltan hainbat kultur ekintza antolatuko ditu herrian Korrika iritsi bitartean. Dagoeneko bi bilera egin ditu batzordeak eta hainbat eragile eta norbanako bildu ditu. Hurrengo batzarra martxoaren 11n izango da.



Irundik Baionarat

2024ko martxoaren 14tik 24ra

Astigarragako Udalak 12.359.152 euroko aurrekontua izango du aurten



Astigarragako Udalak inoizko aurrekontu handiena onartu du aurtengorako, 2023an baino %11,61 gehiago, EH Bilduren aldeko botoekin eta PSE-EE eta EAJren aurkako botoekin.

Herritarrentzako politika eta zerbitzu sozialen atalak (gizarte zerbitzuak; berdintasuna; kultura, jaiak, gazteak; kirola; euskara eta hezkuntza) aurrekontu osoaren %39 hartzen du.

Urriaren 31n aurkeztu zuen Udal Gobernuak 2024ko aurrekontuaren proposamena. Azaroan zehar auzoz auzoko bilerak egin ziren eta Udal taldeek emendakinak eta proposamenak egiteko aukera izan zuten. Prozesu hori amaituta, azaroaren 28ko Udal osoko bilkuran onartu zen aurrekontua.

2024ko Udal aurrekontuak iaz baino 1.285.130 euro gehiago ditu, hau da, %11,61 gehiago, diru-sarreretan egon den igoeragatik:

- Aldundiak herrien artean banatzen duen ekarpena (Foru Funtsa) 640.699 euro igo da, %11 alegia.
- Udal zergen eta tasen igoeragatik eta hauen eroldaren eguneraketarengatik, kopurua 423.000 euro igo da.
- Herriko hainbat harrobietan egingo diren betelanengatik kobratuko den tasa 200.000 eurokoa izatea aurreikusten da.

- Udalak gordailu batengatik duen diru-funtsarengatik, 140.000 euroko interesak kobratuko ditu.

Gastuen aurrekontuari dagokionez, pertsonalaren gastuek eta inbertsioek izan dute hazkunde nabarmena. Pertsonalaren kapituluak %14,97 egingo du gora. Batetik, langileen soldata %3 igotzea aurreikusi delako eta, bestetik, hainbat lanpostu berri edo hainbat lanposturen jardunaldia luzatuko delako.

Udaltzaingoan plaza lortu berri duten hiru udaltzain Arkautera joan beharko dira legez dagokien prestakuntza osatzera eta, bitartean, beste hiru udaltzain kontratatu beharko dira ordezkapen lanak egiteko. Gainera, udaltzain zerbitzuaren beharrei hobeto erantzuteko, udaltzainen jardunaldia %15ean areagotzeko aukera aurreikusi da, eta 50.000 euro auto elektriko bat erosteko.

Administrazio orokorrean igoera 113.812 eurokoa izango da, batik bat,

Udalaren babes juridikoa areagotzeko Administrazio Orokorreko teknikariaren funtzionario plaza sortu delako.

Kulturan ere lanpostu berriak sortuko dira, atezain administrariarena eta liburutegian praktikan egongo den pertsonarena.

Bestalde, **inbertsioek igoera nabarmenena izango dute**, 448.000 euro gehiago, guztira 1.278.000 euro gehiago, **ia %54 gehiago**.

Inbertsio esanguratsuen Apeztegiko igogailua izango da, 545.000 euroekin. Igogailu honi esker, herrigunea Goiko plazarekin, udaletxearekin eta eskolarekin modu irisgarrian lotzea lortuko da. Herrian izango den bigarren igogailu publikoa izango da.

Ibai-parkea handitzeko eta uholdeen aurkako obrak egiteko eskuratu behar diren lurren erosketak gauzatzeko 160.000 euro ere bideratuko dira. Bestetik, 2023an Udalak Nabarra Oinatzeko lokal bat erostea erabaki zuen (Banco Popular banketxea zegoen lokala) eta 2024an erosketaren azken zatia ordainduko da, eta honi esker, lokal honetan Gizarte-zerbitzuak, Berdintasuna, Tokiko Garapena eta Kalexka zerbitzua (adin txikikoen eta familien arreta psikosozialaren zerbitzua) egokitze obra-proiektua idatziko da.

Herriko musika talde eta gazteen eskaerari erantzuteko 120.000 euroko inbertsioa ere egingo da, frontoiaren azpiko garajeetan bi entsegu gela egokitze. Herri dinamiko eta bizi baten alde, herriko talentuari, gazte talentuari batik batik, espazioa eta autonomia eskaintzea da helburua.

Horiez gain, aterpetxean hobekuntza lanak egingo dira, lehen bizikleta aparkaleku estaliak ipiniko dira, Izaskun kalearen atzealdean txakur-parke berri bat egokituko da eta oraingo Asti Txiki I-eko lokala (lehen haurreskola zena) AEKrentzat egokitze obra-proiektua idatziko da.

Gizarte eta berdintasun politikak bereziki indartuko dira aurrekontu hauekin, bai eta kultura ere, eta handi-

tu egingo dira herritarren nahiz elkarte eta eragileen diru-laguntzak.

Gizarte Zerbitzuen Sailaren aurrekontua 1.213.869 eurokoa aurreikusi da, iazkoa baino %15,42 handiagoa, orain arteko kopururik handiena. Gizarte zerbitzuek aurrekontu osoaren %9,82 izango dute eta %10ean zehaztu ohi da bikaintasunaren adierazle bezala. Hortik oso gertu kokatu izana Udalak gizarte babesarekin duen konpromisoaren adierazle garbia da.

Bide honetan, gizarte-babesa indartu eta zerbitzu berriak sortuko dira, mendekotasun arriskuan dauden adinekoei zuzendutako eguneko arreta zerbitzu berri jarriko da abian, eta adingabeen diru-laguntzak eta esku-hartze psikosoziala ere indartuko dira, guztira 105.000 euro.

Berdintasun politiketarako 20.000 euro gehiago izango dira, %36 gehiago, besteak beste, martxan jarri berri diren emakumeentzako aholkularitza juridikoa eta zirrara sexu-aholkularitza zerbitzua eskaintzeko. Halaber, bizikidetarako 15.000 euro gehiago aurreikusi dira eta partaidetarako zenbatekoa ere bikoiztu egin da.

Hirigintza eta ingurugiro saileko ingurugintza hondakinen bilketa eta tratamenduaren kostu gehigarriatik izango da, zehazki 193.000 euro handitua. Obrak eta zerbitzuetan, herri bideen berritzearekin jarraituko da, 150.000 euroekin, urteko ekimen nagusia Olabide bidea berritzea izango delarik.

Kultura, Jaiak eta Gazteria Sailari dagokionez, %26,1 igoko da, hau da, iaz baino 288.706 euro gehiago. Kultur programazioa indartzeko 75.000 euro gehiago bideratuko dira, horietatik 15.000 euro, herriko eragileek kultur programazioan zuzenean eragin ahal izateko dira.

Diru-laguntzei dagokionez, orain arteko eutsiko zaie (baserritarren aldeko laguntzak, alokairuko laguntzak, eskola garraiorako laguntza, Kontxa Etxeberria beka, familientzako gizarte-laguntzak) eta beste hainbat indartuko dira. Guztira, 1.642.633 euro.

El Ayuntamiento tendrá este año un presupuesto de 12.359.152 euros

El 31 de octubre el Gobierno Municipal presentó la propuesta del presupuesto de 2024. Durante el mes de noviembre se realizaron reuniones vecinales y los grupos municipales tuvieron la oportunidad de realizar enmiendas y propuestas. Finalizado este proceso, el presupuesto fue aprobado en el pleno municipal del 28 de noviembre, que cuenta con 1.285.130 euros más que el año pasado.

Este incremento del presupuesto se debe principalmente a las subidas en los ingresos del Ayuntamiento: aumento de la aportación que distribuye la Diputación entre los municipios (640.600 euros más); subida de los impuestos y tasas municipales y la actualización del padrón de los mismos (423.000 euros más); la tasa que se cobrará por los rellenos que se realizarán en las diferentes canteras de la localidad (se prevén 200.000 euros); y por último, el Ayuntamiento cobrará 140.000 euros de intereses por un depósito.

En cuanto al presupuesto de gastos, los gastos de personal e inversiones son los conceptos que registran un mayor crecimiento, con un incremento del capítulo de personal del 14,97%, debido sobre todo a la ampliación de la plantilla y a los gastos que se van a generar en la formación de las nuevas incorporaciones en la policía municipal.

Las inversiones también experimentarán una notable subida, casi un 54% más que el año pasado. La inversión más significativa será para el ascensor de Apeztegi.

Por último, se reforzarán especialmente las políticas sociales y de igualdad, así como la cultura, y aumentarán las subvenciones de la ciudadanía, asociaciones y agentes.

Aurten ere martxan dira 'ZiRRara' sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua eta emakumeei zuzendutako aholkularitza juridikoa

'ZiRRara' Astigarragako sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua 16 urtetik gorako herritar orori zuzenduta dago eta sexualitateari buruz egon daitezkeen zalantzak eta kezkek argitzeko helburua izateaz gain, nork bere sexualitatea garatzeko eta miazteko espazioa ere bada.



Ainhoa Aira Calero da aholkularitza emateaz arduratzen den aditua, pedagogian graduatua, sexu-hezitzailea eta berdintasunerako hezkuntzan aditua.

Ainhoa Aira Calerok dioenez, "sexu eta bikote aholkularitzaren beharrik ez dugula uste izaten dute askok, ezezagutzatik, nork bere erresistentziengatik edo lotsagatik". Zerbitzu hori edozeinentzat interesgarria izan daiteke, ordea.



- Gurasoak edo hezitzaileak seme-ala-ben edo haur eta nerabeen garapen sexualari eta sexu-heziketari lotuta dituzten kezkek argitzeko.
- Gazteen kasuan, autoestimua lantzeko, nork bere gorputza ezagutzeko eta autoerotismoa garatzeko, identitate, orientazioarekin lotutako kezkek konpartitzeko eta sexu-praktika osasuntsuei buruzko aholkuak jasotzeko.
- Bikoteen kasuan landu daitezkeen gaiak beharren arabera dira, esate baterako, monotoniatik ateratzeko estrategiak, bizikidetzari lotutako gatazkak edo koitoarekin lotutako ohiko zailtasunak (eiakulazioa, zakilaren tentetzea, baginismoa, desio baxua...).
- Gainera, egoera anitzetan gerta daki-guke gure gorputzaren eraldaketak bizitzea. Trantsizio egoera hauetan, nork bere gorputzarekin eta plazerrekin birkonektatu beharra eduki dezake eta gure erotika eta harremantzerako erak egokitzea ezinbestekoa da.

AURREZ AURREKO ARRETA EDO KONTSULTAK ONLINE

Asteazkenero, 16:00-19:00, Kultur Etxe Zaharreko behe solairuan.

Aldez aurretik txanda hartzea beharrezkoa, zirrara@astigarraga.eus helbidera idatzita edo 747493457 zenbakira deituta.

Kontsultak online egiteko aukera zirrara@astigarraga.eus helbidean edo 747 493 457 telefonoan (Whatsapp bidez).

Zerbitzua doakoa eta konfidentziala da.

Informazio gehiago: www.astigarraga.eus/eu/sexu



EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO AHOALKULARITZA JURIDIKOA

Sarritan eguneroko hainbat egoeratan gatazkak, diskriminazio-egoerak, zapalkuntzak edo eskubide-urraketak jasaten ditugu.

Egoera horiei aurre egiteko ezinbestekoa da gure eskubideak edo legez dauzkagun aukerak ezagutzea. Oreak emozionala mantentzea, ordea, ez da erraza izaten eta ahalegin izugarria da abokatu baten kontsultara joateko indarra gureganatzea.

Aholkularitza juridiko zerbitzua gai anitzekin lotutako gatazkei buruzko aholkularitza juridiko espezializatu bat izateko eskubidea bermatzen die herriko edozein adinetako neska, nerabe edo emakumeei.

Gai konplexuei buruzko kontsultak egin ahalko dituzte: familia arlokoak, indarkeria matxistari buruzkoak, lan eremukoak, atzerriartasunari buruzko kezkek eta gatazkak edo gai zibil eta penaletan bestelako kontsultak.

AURREZ AURREKO ARRETA

Astelehenetan hamabostean behin, 16:00-18:00, Emakumeon Etxean.

Aldez aurretik hitzordua hartzea beharrezkoa, emakumeonetxea.astigarraga@gmail.com helbidera idatzita edo 648 41 71 57 telefonora deituta.

Zerbitzua konfidentziala eta doakoa da.

Informazio gehiago:

www.astigarraga.eus/emakumeontzako-aholkularitza-juridikoa

Otro año más están en marcha el servicio de asesoramiento sexual y de pareja 'ZiRRara' y el asesoramiento jurídico dirigido a mujeres

SERVICIO DE ASESORAMIENTO SEXUAL Y DE PAREJA 'ZiRRara'

El servicio está dirigido a toda la población mayor de 16 años y tiene como objetivo resolver dudas e inquietudes sobre la sexualidad, además de ser un espacio para el desarrollo y exploración de la propia sexualidad.

ASESORAMIENTO JURÍDICO A MUJERES

El servicio está dirigido a niñas, adolescentes o mujeres de cualquier edad de la localidad y podrán realizar consultas sobre temas complejos: familiares, de violencia machista, laborales, preocupaciones y conflictos sobre extranjería u otros temas civiles y penales.

Txotx denboraldia: Ospakizun garaia, bizikidetzan erronkak dituen Temporada de txotx: Época de celebraciones con retos en la convivencia

Txotx denboraldia iristearekin batera, Astigarraga jaiegun eta tradizioaren epizentro bihurtzen da, eta gero eta bisitari gehiago erakartzen ditu, beren janari gozoaz eta sagardoaz gozatzeko gogoz. Gure herriko kaleak alaitzen dituen jai giroaz betetzen dira asteburuak, gure kultura eta abegikortasuna islatuz. Hala ere, garrantzitsua da aitortzea jende-kopurua handitzeak egoera deserosoak ere eragin ditzakeela herritarrentzat.

Ospakizunaren eta herriaren eguneroko bizitzaren arteko bizikidetzaren oreka delikatu da, arreta eta elkarrizketa etengabea eskatzen duena. Gai horrek eztabaida interesgarria piztu du Astigarragako alderdi politikoen artean, eta hurrengo leuroetan beren ikuspegiak partekatu dituzte.

Con la llegada de la temporada de txotx, Astigarraga se convierte en un epicentro de festividad y tradición, que cada vez atrae a más visitantes con ganas de disfrutar de su deliciosa comida y sidra. Los fines de semana se llenan de un ambiente festivo que alegra las calles de nuestro pueblo, reflejando nuestra cultura y hospitalidad. Sin embargo, es importante reconocer que el aumento de la afluencia de personas también puede provocar situaciones incómodas para la ciudadanía. La convivencia entre la celebración y la vida cotidiana del pueblo es un delicado equilibrio que requiere atención y diálogo constante. Esta cuestión ha suscitado un interesante debate entre los partidos políticos de Astigarraga, que han compartido sus puntos de vista en las siguientes líneas.

Xabier Urdangarin

EHBildu

Sagardo bolada hasi berri da eta hasi gara jende uholdearen ondorioak nozitzen, bereziki larunbat eguerdi eta arratsaldetan.

Sagardoaren kultura barren-barrenean dugu Astigarragan, mendez mendez eta belaunez belaun guregana iritsi den kultura eta bizimodua da eta harrotasunez utzi nahi dugu hurrengo belaunaldien eskuetan. Gozagarri da guretzat txotxetik sagardo berriak dastatzea, azken aldian sagardogileek egin duten ahaleginaren ondorio diren produktu berriak dastatzearekin batera.

Sagardoaren kulturak, sagardoak dastatu eta probatzeak, sagardotegiko lagunarte eta harremanek ez dute, nolahi ere, zerikusirik jende pilaketaren eta neurri-gabeko parrandaren aitzakian gertatzen diren gehiegikeriekin. Neurririk gabeko parrandaren testuinguruan, gainera, portaera matxista, homofobo eta arrazistak gertatzen dira batzuetan. Hori onartezina da eta, beraz, beharrezkoa iruditzen zaigu sentsibilizazio kanpainak egitea, mezu garbi batekin: "Sagar ustelak sagardoa hondatzen du, jokatu arduraz!". Portaera horiez gain, elkarbizitzaren inguruko hainbat eragozpen ere sortzen dira sagardo boladan: aparkatzeko arazoak, zarata, zinkinkeria eta antzekoak.

Edonola ere, denon inplikazioa ezinbestekoa da elkarbizitzan sortzen diren arazo hauei aurre egiteko, administrazio publikoena, herritarrena, ostalariena eta sagardotegiarena. Astigarraga geurea delako eta sagardogintzaren kultura ere geurea delako, ez gaude prest albo kalteak direla pentsatu eta gaia bere horretan uzteko.

Patxi Suarez

PSE-EE

Txotx denboraldia hasi zen, ziur aski hasiera ofiziala baino lehen; izan ere, herrian urtarriletik jada nabari daiteke, eta ez da harritzekoa, hainbeste eskaintzeko baitugu, eta Gipuzkoako herri guztietatik ez ezik, beste herrialde batzuetatik ere, Frantziatik esaterako, lagun askok gure sagardoaz, gure jakiaz, gure tradizioaz azken finean, gozatzera Astigarragara etorri nahi dute. Zalantzarik gabe, diru-iturri eta beste onura batzuk ekartzen dizkigute.

Baina beste leku batzuetan gertatzen den bezala, herri polit eta erakargarri bizi denean, bizilagunen eta bisitarien artean beti egoera deserosoak sor daitezke, hala nola bizikidetzaren arazoak edo eraso sexistak eta homofoboak, herritarren atsedenaldiaren arazoaz aparte. Hori dela eta, erakunde publikoen gainetik kontrakoak ahal diren interesen oreka aurkitu behar dugu.

Kontzientziazio kanpainak baloreen jarri nahiko nituzke, "Nik sinesten dizut" txapak edo Karpa Morea esate baterako, eta herritarrak parte hartzera animatu nahiko nituzke. Hala ere, bisitarien arduraz jokatzeko eskatzeaz gain, ezin diogu gogoratzeari utzi segurtasun gehiago lortzeko presentzia polizial gehiago ere behar dugula, baita ostalaritzaren ordutegiak betearaztea ere; eta horretarako espero dut bai Eusko Jaurlaritzak bai Udalak haien betekizunak egin ditzatela.

Amaitzeko, ez nioke azpimarratzeari utzi nahi gustatuko litzaidakeela aurtengo txotx denboraldia amaitu ondoren, alde batetik, ez zela eraso ez homofobo ez sexista-rik egon denboraldi osoan, eta beste alde batetik, ez zela auto-istripurik egon, bisitari gehienek garraio publikoa erabiltzea erabaki zutelako.



MARTXOAK 7

18:30 Erriberan
Euskaraz

Jon Artanoren
"Juana"
liburuaren
aurkezpena.

Presentación del libro
"Juana" de Jon Artano.

MARTXOAK 11

17:30 Emakumeon Etxean
Hizkuntza:

Taldearen araberakoa.
Kafe tertulia.

Café tertulia.

Idioma: según necesidades
de las personas asistentes.

MARTXOAK 20

18:30 Emakumeon Etxean
Euskaraz

Hitzaldia: "Ezkontzearen
(edo banantzearen)
ondorio juridikoak"

Hizlaria: Macarena

Mugica Urbistondo (Irule abokatuak).

Charla: "Consecuencias jurídicas
de casarse (o divorciarse)".

MARTXOAK 8

12:15 Udaletxe aurrean
Elkarretaratzea.

Concentración.

17:30 Erriberatik
Emakumeon Plazara
Manifestazioa. Ondoren,
elkarrekin Donostiako
manifestaziora joango gara.

Gora borroka
feminista!

¡Viva la lucha feminista!

OTSAILAK 28

17:00-19:00 Gaztelekuan

Euskaraz

Maskulinitate tailerra nerabeentzat:
"Norena da pastela?"

Ez da beharrezkoa aldeztu aurretik izena ematea.

MARTXOAK 2

10:00-11:30 Emakumeon Etxean

Euskaraz

Hitzaldia: "Nola jokatu eraso matxista
baten aurrean? Indarkeria eta eraso
matxisten esku-hartzeak". Hitzaldiaren ondoren
"Nik sinesten dizut" txapak banatuko dira.

Hizlaria: Emagin elkarte.

Charla: "¿Cómo actuar ante una agresión o un caso de
violencia machista? Intervenciones en casos de violencia
y agresiones machistas". Al finalizar la charla se
repartirán las chapas "Nik sinesten dizut" ("Yo te creo").

17:00-19:00 Gaztelekuan. Euskaraz Feminitate tailerra nerabeentzat: "Nork jango du pastela?"

Ez da beharrezkoa aldeztu
aurretik izena ematea.

MARTXOAK 9

11:00-13:00

Emakumeon Etxean
Euskaraz

Lodifobiari buruzko
hitzaldia eta
ondoren bazkari
autogestionatua.

Hizlaria: Maddi Etxeberria Otaegi.

Charla sobre gordofobia y
a continuación
almuerzo o comida autogestionada.

MARTXOAK 23

19:00 Erriberan

"Plañideras" dantza-ikuskizuna.

Oihana Varela gidatutako performance dantza
honek gizartean dagoen eta historian zehar
nola iraun eta eboluzionatu duen gehiegizko kexa
edo iritzia gai nagusi du. Istoria hau kontatzeko
aukeratutako pertsonaia plañidera da, negar-kantaria.

Espectáculo de danza "Plañideras"
dirigido por Oihana Varela.

